

BALOREZKO PROPOSAMENA

Beñat Susperregi, Maiane Garro, Hodei Vesga, Xabat Olaiz eta Iñigo Ibañez gara eta *bMhiX* taldeko partaideak gara eta bizikleta garbigailu berritzaile bat proposatzeko ideia dugu. Garbigailuaren berezitasun nabarmenetako bat energia berriztagarrien erabilera da, bizikleta estatiko baten pedalei eraginez garbigailua martxan jartzen da eta arropak garbitu egiten dira. Berrikuntza honekin, energia berriztagarrien erabilera sustatzen da, erakutsiz energia bakar bat ekintza bat baino gehiago egiteko baliatu daitekeela.

Gure bezeroek produktu hau erosiko balute, kirola egitean sortutako energia berrerabiliko lukete egunerokoan egiten den ekintza bat gauzatzeko. Hau da, gure bizikleta garbigailua erosiz gero kirola egiten duzun bitartean arropa ere garbitu dezakezu batere kutsadurarik sortu gabe eta gainera elektrizitatearen beharrik gabe, ondorioz, dirua ere aurreztu dezakete bezeroek. Horretaz gain, nolabaiteko autonomia ematen dio bezeroari, izan ere, ez da elektrizitatea sortzen duten enpresen menpe egongo garbigailua jartzeko garaian. Adibidez noizbait argia joaten bada, gure produktuaren erabiltzaileak ez du arazorik izango arropa garbitzeko.

Gure produktua beste produktuetatik erraz bereiz daiteke, besteak beste, elementu hauengatik:

Lehenik eta behin ideia **berritzailea** da, izan ere, gure inguruan ez da horrelako produkturik atera merkatura, gainera pertsonalizatzeko aukera izango dute, gure produktua erosiko duten denek.

Bigarrenik, gure produktuak **pertsonalizatzeko** bi aukera ere ematen ditu. Lehen aukera, *mountain bike* modukoa izango litzateke, eta bigarrena berriz, karreterako bizikletaren antzekoa. Bi aukera hauen artean, karreterakoak heldulekua desberdina izango luke, garbiketa postura etzanago batean egiteko, modu errealago batean. *Mountain bike*ak berriz betiko heldulekua izango luke. Honekin txirrindularitzak dituen bi aukerak bermatzeko aukera emango liguke.

Beste ezaugarri bat **erabilerraztasuna** da. Gure produktua oso erraza izango da erabiltzen. Izan ere, gure garbigailuaren bizikleta estatikoa erabiltzean, garbigailua bakarrik piztu eta martxan jarriko da pedalei eragiten hasten garen momentutik gelditu arte. Hala ere, arazoren bat izanez gero, gure produktuak jarraibide orria ekartzen du makina erabiltzen ikasteko.

Horretaz gain, orain arte Espainian ez da bizikleta garbigailurik jarri salmentan, guk hori aldatu nahi dugu. Gailua bezero gehiagorentzat eskuragarriagoa izatea nahi dugunez, **eskuragarritasuna** eskainiko genuke. Gainera, gure antzeko produktuak ia inon saltzen ez direnez, dendetan erosteaz gain, internetetik jarriko dugu salmentan eskuragarriagoa izateko mundu guztian.

Eta bukatzeko, gure produktuaren **prezioa** ez da oso erakargarria izango bezeroentzat, hala ere, kontuan izan behar dugu "Ekobike"-a bi produktuen prezio elkartzan dituela (garbigailua eta bizikleta estatikoa). Horrela, nahiz eta hasierako prezioa 750€-koa izan, etorkizunean bezeroek inbertitutako dirua berreskuratuko zuten. Izan ere, behin hasierako prezioa ordainduta, ez ditu inolako gasturik edukiko, nahiz eta elektrizitatea behar, zuk sortzen duzulako produktu hori erabiltzeko behar den elektrizitatea pedalei ematen. Gainera, gaur egungo argiaren prezioa oso altua denez, azkar berreskuratuko zuten inbertitutako diru guztia.

Ezaugarri hauengatik, gure produktuak bezero mota guztien beharrak asetzen ditu energia berriztagarrien gastua soilik eginez eta kirola egitean sortu dezakegun energia askoz gehiago aprobetxatuz garbiketa eta kirola batera eginez, horrek planetako kutsaduraren arazoan laguntza bat izango da.